Hegazti-ustiategien araudiaren berrikuntzak

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa hegazti-ustiategien ordenazio-arauak arautuko dituen Errege Dekretuaren zirriborroa ari da prestatzen, **errutekoak eta haragiarenak barne.** Orain arte, soilik haragi-ustiategiek zuten ordenazio-arau bat (1084/20059 Errege Dekretua, indargabetu egingo zutena), eta errutekoek ez zuten inolako estaldurarik.

Besteak beste, Dekretu horren helburua ustiategi horien eskakizunak animalien ekoizpenaren eta **osasunaren** egungo erronketara egokitzea da, **biosegurtasunean, ingurumenaren** babesean eta **animalien ongizatean zentratuz.**

Arauak, ustiategiaren tamainuaren arabere, badintza desberdinak ezarriten ditu.

Ustiategien definizioa tamainaren arabera

Aplikazio-eremua hegazti-ustiategi guztiek osatzen dute, hau da, arrautzenak, haragiarenak eta ugaltzekoak, autokontsumora zuzendutakoak gehitu gabe. Tamaina txikikoek salbuespen batzuk dituzte. Guztira, azken horien artean bi ustiategi mota bereiz daitezke:

- **Autokontsumoa:** haragi- (gehienez 0,5 ALU, **50 oilasko**) eta arrautza-ustiategiak (gehienez 0,3 ALU, **30 oilo**), ekoizpena komertzializatzen ez dutenak.
- **Mikroustiategiak**: gehienez 1,5 ALU (**300 oilasko, 150 oilo**) eduki eta komertzializatzen dituena.
- **Ustiategi murriztuak**: bataz besteko errolda 70 ALUkoa da haragi-oilaskoentzat (**14.000 oilasko**), eta, gehienez, 70 ALUkoa oilo erruleentzat (7.000 oilo).

Oilaskoetan hazkuntza-sistema identifikatzeko derrigortasuna

Arau horrek gehituko duen beste berrikuntzetako bat ustiategi bakoitzean erabiltzen den **ekoizpen-sistema identifikatzea izango da haragi-oilaskoen kasuan,** II. eranskinean zehazten den moduan. Izendapenak honako hauek izango dira:

- **Hazkuntza ekologikoa**
- **Barneko oilategia**
- **Barneko estentsiboa**
- **Landakoa**
- **Landako tradizionala**
- **Erabat aske hazitako landakoa**

Baldintza tekniko barriak

Ustiategietan erantzukizuna duten pertsona eta erakundeei dagokienez, haien funtzioak modu argian zehazteaz gain, **ustiategiko albaitari bat izatearen beharra** gehitzen du.

Ingurumenaren arloan, **simaurraren kudeaketa egokia eta igorpenak murrizteko programa** eskatzen ditu. Bestalde, tamaina txikiko ustiategietan izan ezik, gainerakoetan **teknika erabilgarri onenak** (TEO) aplikatu beharko dira.

Animalien ongizateari begira, araudi propioa ez duten fase eta espeziei dagokienez, **Europako Kontseiluaren Gomendioak gehitzen ditu nahitaezko arau moduan.**

Bestetik, ustiategi guztiek hegazti-baserriak **kudeatzeko sistema integrala** izan beharko dute, non arauak zehaztutako baldintza guztiak betetzen direla egiaztatuko den dokumentalki. Horrez gain, autokontrolaren kontzeptua gehituko da, eta **ustiategiko albaitariak bisita-plan bat bete beharko du.**

Joan den irailaren 26an amaitu zen arauaren aurkako alegazioak aurkezteko epea; Ministroen Kontseiluaren onespenaren aurreko urratsa da hori.

Información de interés:

Hegazti erruleak – MAPA

Haragiko hegaztiak– MAPA

Antibiotikoekiko Erresistentziaren aurkako Plan berria

Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioak 2019-2021 aldirako Antibiotikoekiko Erresistentziaren aurkako Plan Nazional (PRAN) berria argitaratu du. Plan horrek jarraipena emango dio 2014-2018 aldiko PRAN planari.

Antibiotikoekiko erresistentzia **mundu-mailako arazoa da**, eta gizakien nahiz animalien osasunari eragiten dio, baita ingurumenari, merkataritzari eta, ondorioz, ekonomia orokorrari ere.

Antibiotikoekiko erresistentziaren aurkako **Espainiako lehen estrategia aplikatzeari esker**, hau lortu da **giza osasunaren arloan**:

1. Antibiotikoen **kontsumoa zaintzeko sistema hobetzea**.
2. Osasun Laguntzarekin Erlazionatutako **Infekzioak Zaintzeko Sistema Nazionala (IRAS)**

onartzea.
3. Datu nazionalen **monitorizazioa hobetzea**.

Eta hau **animalien osasunaren arloan**:

- Albaitaritza-erabilerako **antibiotikoen salmentei buruzko datuak biltzeko sistema nazionala hobetzea**.
- Albaitaritzako antibiotikoen **erabilerari buruzko datuak biltzeko sistema nazional bat ezartzea**.
- **REDUCE programa abian jartze**a abeltzaintzako zenbait sektoretan (txerrien sektorean, kolistinaren kontsumoa % 97,18 murriztea lortu da).

Horretarako, **PRAN berriak neurri estrategiko** hauek biltzen ditu:

- Antibiotikoenkontsumoa eta horiekiko erresistentzia **zaintzea**.
- Antibiotikoekiko erresistentzia **kontrolatzea**.
- Antibiotikoen **premiari** aurrea hartzea.
- Erresistentzien fenomenoa **ikertzea**.
- Gaian **trebatzea**.
- Biztanleria jakinaren gainean egotea eta **sentsibilizatzea**.

Bestetik, Espainiako **lehen JIACRA txostena** egin da. Bertan, lehen aldiz bildu dira antibiotikoen kontsumoari eta antibiotikoekiko erresistentziari buruzko datuak, **giza osasunari zein animalien osasunari dagozkienak.**

Hauek dira lehen txosten horretan bildutako **ondorio aipagarrienak**:

- Espainian giza osasunarekin lotuta kontsumitzen diren antibiotikoen guztizko kopurua nahiko konstantea izan da azken hiru urteetan; dena den, **ospitaleen esparruan, antibiotikoen kontsumoak % 10 egin du gora 2012. urtetik.**
- Espainiako **albaitaritzako antibiotikoen kontsumoak % 14 egin du behera**, gutxi gorabehera (2014-2016 aldian).
- Pertsona eta animalietako ***Salmonella enteritidis***aren andui isolatuetan, **kinolonekiko erresistentzien portzentajea nahiko handia izan da** (% 50etik gorakoa).
- Populazio-multzo batek (pertsonak edo animaliak) antibiotikoekiko dituen erresistentziak gutxitzeko modurik onena da antibiotikoen kontsumoa murriztea populazio-multzo horretan bertan. Dena den, neurri txikiagoan bada ere, **albaitaritzan antibiotiko gutxiago erabiltzea onuragarria da pertsonetako bakterio isolatuen erresistentzia-portzentajeak murrizteko.**

Neurri berriak Mingain Urdin gaixotasunari aurre egiteko

Ofizialki aldatu dira:

- **1. eta 4. serotipoen aurreko murrizketa-guneak.**
- **Txertaketa-kanpainak luzatu dira, 2020 arte.**
- **4. serotipoaren aurrean borondatez txertatzeko gunea zabaldu egin da, Espainiaren eta Frantziaren arteko mugalderaino.**

Ministerioen Aginduen bidez egokitu dira gaixotasun horren kontra borrokatzeko programak. **Orain artean azkena AAA/1424/2015 Agindua** izan da.

Europako legeriaren arabera, eta kontuan hartuta bete egin dela birusaren 1. eta 4. serotipoa gutxienez bi urtez lurralde jakin batzuetan zirkulazioan ez egotearen eskakizuna, **beharrezkotzat jotzen da aipatutako Aginduaren murrizte-guneak aldatzea**.

Bestalde, komenigarritzat jotzen da, gainera, **bi urte gehiagoz luzatzea nahitaez txertatzeko epea**, murrizketa-guneetan.

Era berean, Frantziako egoera epidemiologikoaren eboluzioa ikusita, non 2018. urtean Mingain Urdin gaixotasunaren 4. serotipoaren hogeita hamalau foku erregistratu ziren, horietako batzuk Espainiarekin muga egiten duten guneetan, eta horri Frantziaren eta harekin muga egiten duten autonomia erkidegoen arteko txahalen mugimendu etengabea gehituta, beharrezkotzat jotzen da Mingain Urdin birusaren **4. serotipoaren prebentziozko txertaketa boluntarioa abiaraztea**, Espainiak Frantziarekin muga egiten duen gunean.

Mugimendu-murrizketarik gabeko guneko txertaketa, kasu honetan bezala, ekainaren 29ko 1001/2012 Errege Dekretuak arautzen du. Dekretu horrek azaroaren 8ko 1228/2001 Errege Dekretua aldatzen du, eta haren bidez ardien marranta-sukarraren edo Mingain Urdinaren aurka borrokatzeko eta gaixotasuna desagerrarazteko neurri espezifikoak ezartzen dira. Halaber, aukera ematen du jardueraz gabetutako txertoak erabiltzeko animalien mugimenduak mugatuta dauden guneetatik kanpo.

Aldaketa guzti hauek hurrengo arauan batzen dira:

APA/385/2019 Agindua, apirilaren 2koa, AAA/1424/2015 Agindua aldatzen duena.

Trichinelosia Europan 2017 urtean

- **Trikinelosia oso gaixotasun arraroa baina larria da Europar Batasunean (EB).**
- **2017an, 168 kasu egiaztatu ziren.**
- **Bulgarian, Kroazian eta Errumanian gertatu ziren baieztatutako kasuen % 73,8.**
- **Kontrolatu gabeko baldintzetan hazitako eta gutxi kozinatutako txerri-haragi eta ehiztatutako basurde-haragia kontsumitzean harrapa daiteke gaixotasuna. Basurde-haragia da arriskutsuena gizakientzat.**

2017an, jakinarazpenen kopuruak % 50 egin du gora 2016ko kopuruarekin erkatuz gero. Hala ere, **igoera** hori **Bulgarian, Errumanian eta Kroazian jakinarazitako kasuen kopuruaren gorakadaren ondorio da**, aurreko urteetan oso kopuru gutxi jakinarazi baitzituzten.

Igoera hori gorabehera, 2012az geroztik joera beheranzkoa izan da.

Europako legediak (1375/2015 Legedia) eskatzen du ***Trichinella* aztertzeko hildako txerri, basurde, basa-animalia, zaldi eta kontrolatu gabeko animalia-hazkuntzako beste kasu batzuetan.** Ez da arau honetan sartzen autokontsumorako txerriak hiltzea, estatu kide bakoitzak arautzen baitu.

2017an, sei estatu kidek *Trichinella* kasuak jakinarazi dituzte, Bulgarian, Polonian, Kroazian, Errumanian eta Espainian taldekatutako txerri kutsatuetan.

Urtarrilean eta otsailean eman ohi dira kasu gehien, Gabonekin eta basurde-ehizaldiarekin bat etorriz.

Etxeko txerrietan egindako azterlanek adierazten dute aldez aurreko kontaktua (zuzena edo zeharkakoa) egon dela nematodo horren gordailu diren basa-animaliekin.

Hedapen-ereduen arabera, ***T. espiralis* espeziea ez da hain ohikoa Europako iparraldean** eta ***T. britovi* espezieak kontzentrazio handiagoa izaten du Europako ekialdean**.

1375/2015 Legedia

Informazio interesgarria

ECDCk **beste gaixotasun batzuen zaintzari buruzko 2017ko urteko txostenak** ere argitaratu ditu 2019an, besteak beste:

- Erresistentzia antimikrobianoa
- Rift haraneko sukarra

Beste txosten batzuk

Salmonellaren kontrola oiloetan eta osasun publikoan duen eragina

Salmonelosia da Europar Batasunean (EB) elikagaien bidez transmititzen diren gaixotasunetan bigarrena. Lehenengoa campilobakteriosia da. 2017an, estatu kideek gizakietan 91.662 salmonelosi-kasu jakinarazi zituzten.

Hainbat urtetan kopuruak behera egin bazuen ere, azken bost urteotan mantendu egin da salmonelosi kasuen kopurua. 2017an kopuruak zertxobait behera egin bazuen ere (94.425 kasuetatik 91.662 kasuetara), **2008an hasi zen beherazko joera geratu egin da**. Datu horiek eta beste batzuk txosten honetan azter daitezke:

Hain zuzen ere gelditze hori dela eta, EFSAK zientzia-iritzi bat argitaratu du. Horren arabera, abeletxeetan oilo erruleetan ***Salmonella*rako helburu zorrotzagoak jartzeak gizakien artean jatorri hori duten kasuak murrizten lagunduko luke**. Honako hauek dira helburu horietako batzuk:

- Gaur egun, EBko herrialdeek % 2ra murriztu behar dute zenbait *Salmonella*-motak kutsatutako **oilo erruleen** kopurua. EFSAk uste du xede hori **% 1era murriztuz gero, gizakietan % 50era murriztuko liratekeela salmonelosien-kasuak.**
- **Oilo ugaltzaileei** dagokienez, gaur egun % 1eko xedea dago ezarrita giza osasunerako garrantzitsuak diren bost *Salmonella* motatarako (*Salmonella enteritidis*, *Salmonella typhimurium*, *Salmonella infantis*, *Salmonella virchow* eta *Salmonella hadar*). **EFSAk gomendatzen du xedea mantentzea hiru motatarako (*Salmonella enteritidis*, *Salmonella typhimurium* eta *Salmonella infantis*) eta beste biak (*Salmonella virchow* eta *Salmonella hadar*) ordeztea** gaur egun giza osasunerako garrantzitsuagoak diren beste mota batzuekin.
- Ostatu-sistemei dagokienez, ondorioztatzen da ***Salmonella*ren presentzia txikiagoa dela ostatu-sistema alternatiboetan hazitako oiloetan kaiola-sistemetan hazten direnetan baino**. Hala ere, arrazoiak ezin dira erabat azaldu, ez baitago zientzia-ebidentziarik.

Trikina aurreko kontingentzia Planaren eguneratzea

Joan den 2018ko abenduaren 19an, AESANeko Batzorde Instituzionalak onetsi egin zuen **Trikinaren aurreko Kontingentzia Plan Nazionalaren aldaketa**. Planaren xedea da nazio mailako jarduera-plana ezartzea, animalietan edo haragian Trikina antzemanez gero edo horietan Trikina egon daitekeela susmatuz gero.

Trikinaren aurreko Kontingentzia Plan Nazionala

Eguneratze honen berritasun nagusiak alderdi hauei buruzkoak dira:

Neurriak abeltzaintza-ustiategietan:

Basa-animalietan trikina antzematen denean, Animalien Osasunaren arloko agintari eskudunek egiaztatu egin beharko dituzte kutsa daitezkeen eta Trichinellarekin kontaktuan egon diren **animalien ustiategietako biosegurtasun-neurriak**.

Neurriak lursail zinegetikoetan:

50/2018 Errege Dekretua (ehizako azpiproduktuen kudeaketari buruzkoa) **ehiza larriaren beste modalitate batzuetan ere aplikatuko da**, baldin eta ehiza-barrutiko animaliek positiboa ematen badute.

Dekretua, gutxienez, kutsatutako animaliak antzeman eta handik aurrera geratzen den ehiza-denboraldian aplikatuko da; eta hurrengo denboraldian ere aplikatuko da, betiere lehenengo jarduera zinegetikoan animalia kutsatuak antzematen badira.

Komunikazioari buruzko neurriak:

Komunikaziorako eredu bateratua ezarri da, eta zehaztu egin da zein kasutan aplikatu beharko den lankidetzarako eta informazioa trukatzeko prozedura, osasun publikorako larriak eta berehalakoak diren arriskuek eragindako elikagai-alertak kudeatzeko.

Aurreko plana onetsi eta 7 urtera **beharrezkoa zen** plana berrikustea eta eguneratzea, besteak beste, dagozkion **lege-aldaketak gehitu ahal izateko.**

Sendagai antibiotikoen arau berria indarrean sartzen da

Abeltzaintza-ustiategietan agindutako antibiotikoak ezagutzeko beharrezkoa den informazioa eskuratze aldera, 2019ko urtarrilaren 2tik aurrera albaitariek agindu dituzten sendagai antibiotikoen errezetei buruzko informazioa bidali beharko dute Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren edo errezetaren hartzailea den ustiategia dagoen autonomia-erkidegoko agintari eskudunen sistema informatikoetara, % 100 elektronikoa den formatuan, joan den apirilean argitaratu zen 191/2018 Errege Dekretua betetze aldera.

- Komunikazioa **hilerokoa** izango da.
- Arau honetan xedatutakoa **giza kontsumorako diren elikagaietarako animaliei agindutako botikei aplikatuko zaie**.
- Araua **ez zaie aplikatuko laguntza-animaliei** agindutako errezetei.

1. Albaitari guztiek sendagaia edo pentsu sendagarria jasoko duen ustiategia dagoen autonomia-erkidegoko agintaritza eskudunaren datu baseari jakinarazi beharko dizkiote **191/2018**

Errege Dekretuko I. eranskinean adierazten diren gutxieneko datuak.
2. Datu baseari egindako komunikazio bakoitzean, antibiotikoak agindu dituen **albaitariak haren elkargo-zenbakia adieraziko du** errezeta bakoitzean.
3. Halaber, **errezeta-zenbakia ere adierazi beharko da**.
4. Errezeta jasoko duen abeltzaintza-ustiategia dagoen autonomia-erkidegoaren arabera, albaitariak Errege Dekretu berriak eskatzen duen **informazioa bidali beharko du autonomia-erkidego horretako agintaritza eskudunek ezarritako sistemetara, bai eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikagai Ministerioaren sistemetara ere**.

Errege Dekretu horretan ezartzen diren **betebeharrak behin eta berriro urratzea arau-hauste larritzat hartuko da**, Animalien Osasunbideari buruzko 8/2003 Legearen arabera. Ondorioz, arau-hauste horiei dagokien zehapena ezarriko zaie, **3.001 eta 60.000 euro arteko isuna barne**.

Arau hau Europar Batasunean antibiotikoekiko erresistentzia sortzeko eta hedatzeko arriskua murrizteko ekintza- eta estrategia-planaren barnean sartzen da, honako hauen arabera: «Europako Parlamentuaren 2011ko maiatzaren 12ko Ebazpena, antibiotikoekiko erresistentziari buruzkoa», «Europako Batzordearen 2011ko azaroaren 17ko komunikazioa, antibiotikoekiko erresistentziari aurre egiteko ekintza-plana ezartzen duena», eta «Europar Batasuneko Kontseiluaren 2012ko maiatzaren 29ko ondorioak, antibiotikoekiko erresistentziaren eraginari eta gizakien nahiz animalien osasunaren esparrutik horri aurre egiteko moduei buruzkoak».

Autonomia-erkidegoetako **agintaritza eskudunek** beharrezko **kontrolak egingo dituzte**, hala administraziokoak nola ustiategikoak, Errege Dekretuan xedatutakoa betetzen dela bermatzeko.

Europak albaitaritza-sendagaiei buruzko arau berriak argitaratuko ditu

Europar Batasunak (EB) **aurki argitaratuko ditu hiru araudi berri**, eta horiek eguneratu egingo dute albaitaritza-sendagaien eta sendagai-pentsuen esparrua, honako xede hauekin:

- **Erresistentzia antimikrobianoari** (AMR) modu eraginkorragoan aurre egitea.
- **Sendagaien/sendagai-pentsuen** eskuragarritasuna eta segurtasuna areagotzea.

Zehazki, honako hauek dira Araudiak:

- Albaitaritza-sendagaiei buruzko Araudia, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena
  - 2001/82/CE Zuzentaraua baliogabetzen duena
- Albaitaritza-pentsuen ekoizpenari, komertzializazioari eta erabilerari buruzko Araua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena
  - 183/2005 Araudia (EE) aldarazi eta 90/167/CEE Zuzentaraua baliogabetzen duena

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Araudia
    - 726/2004 Araudia (EE) aldarazten du. Horren bidez ezartzen dira giza eta abere erabilerarako sendagaiak baimendu eta kontrolatzeko erkidego mailako prozedurak eta sortzen da Sendagaietarako Europako Agentzia 1901/2006 Araudia (EE) aldarazten du, erabilera pediatrikorako sendagaiei buruzkoa. 2001/83/CE Zuzentaraua aldarazten du. Horren bidez ezartzen da erkidego mailako kode bat giza erabilerarako sendagaiei buruz.

Aurreikusi da arau hauek **2018ko amaieran edo 2019ko hasieran argitaratuko direla** eta **3 urte geroago aplikatuko direla**. Bitartean, lege-egintza gehigarriak gauzatuko dira, zenbait alderdi zehatz babestu/osatzeko.

ZEINTZUK IZANGO DIRA BALDINTZA BERRIAK?

- **Debekatu egingo da sendagai-pentsuetan antibiotikoak pilaka erabilt**zea eta horien erabilera prebentiboa. Albaitariek pentsu horien errezeta egin beharko dute beti, aurre-azterketa egokia egin ostean.
- **Mugatu egingo da antibiotikoen erabilera neurri prebentibo gisa**. Kasu hauetan baino ezingo dira erabili: albaitari batek justifikatzen badu edo infekzio-arrisku handia badago.
- **Taldekako tratamenduak** baimenduko dira, **beti ere ez badago beste alternatiba egokirik** eta albaitari batek gomendatzen badu.
- Zenbait antimikrobiano **giza tratamendurako gordeko dira**.
- Albaitaritza-sendagaiak **ezingo dira inoiz erabili animaliak azkarrago haz daitezen**.
- Animalia-jatorriko produktuen inportazioaren bidez, AMRen hedapen-arriskuaren aurkako babesa hobetzen da; izan ere, **hirugarren herrialdeek bete egin beharko dute hazkuntza bultzatzeko antibiotikoak erabiltzeko debekua.**

Gaiari buruzko informazio gehiago:

- Prentsa oharra – EE, 2018/11/26
- Galderak eta erantzunak (ingelesez) – EE, 2018/11/26

Informazio-materiala:

- FAOren informazio-orria

BSE araudia aldatzen da ardientzako

Aldatu egin da BSE (behien entzefalopatia espongiformea) sindromearen araudia ardi eta ahuntzei dagokienez. Aldaketa horri esker, hilketa egin den estatu kideko agintaritza eskudunak **onartutako metodo bat erabili ahal izango da animaliak hamabi hilabete baino gehiago dituen jakiteko.**

- 969/2018 (EE) Erregelamendua

Zehazki, 999/2001 (EE) Erregelamenduaren 1. puntuko b) letra aldatu da. Honela geratu da:

> *"ardiei eta ahuntzei dagokienez: garezurra, garuna eta begiak barne, eta orno-muina, baldin eta animaliek hamabi hilabete baino gehiago badituzte edo haien hortzoian behin betiko ebakortzen bat atera bada,* ***edota hamabi hilabete baino gehiago badituzte hilketa egin den estatu kideko agintaritza eskudunak onartutako metodo baten arabera****"*.

Arrisku-material espezifikoak

Behi, ardi eta ahuntzetan B**SE arriskua ekiditeko neurri bat** da **arrisku-material espezifikoak kentzea**. Ardi eta ahuntzen arrisku-material espezifikoen zerrenda **999/2001 (EE) Erregelamenduaren V. eranskinean agertzen da**; zehazki, 1. puntuko b) letran.

EFSAk eta beste erakunde batzuek eginiko ebaluazio zientifikoetatik ondorioztatu denez, **ardi eta ahuntzetan soilik hamabi hilabete baino gehiago dituzten edo hortzoian behin betiko ebakortzen bat duten animalien garuna, begiak eta orno-muina hartu behar dira arrisku-material espezifikotzat**.

Hausnarkari txikien adina jakitea

Ardi eta ahuntzen hortz-haginak begiratuta haien **gutxi gorabeherako adina bakarrik jakin daiteke**; izan ere, espezie horietan lehen ebakortza ez da beti une berean ateratzen, hilabete batzuk gorabehera.

Europako Batzordeak uste du badaudela beste metodo batzuk hiltzera bidalitako ardi eta ahuntzen adina jakiteko, zeinak antzeko bermea ematen baitute animaliaren adinari dagokionez. Metodo horiek aldatu egin daitezke estatu bakoitzean ardiak eta ahuntzak hiltzeko dituzten bideen berezitasunen arabera. Horregatik, metodoen fidagarritasuna hilketa egiten den estatu kideko agintaritza eskudunak ebaluatu behar du.

Hori dela eta, 999/2001 (EE) Erregelamenduaren V. eranskineko 1. puntuaren b) letra aldatu egin da; hala, hilketa egin den estatu kideko agintaritza eskudunak onartutako metodo bat erabili ahal izango da animaliak hamabi hilabete baino gehiago dituen jakiteko.

Antibiotikoen transmisio elektronikoa arautu da 18/04/26

Joan den apitilaren 18an, **191/2018 Errege-Dekretua** argitaratu zen, giza kontsumorako diren animaliei zuzendutako antibiotikoen albaitarien aginduen datuen transmisio elektronikoa ezartzen duena.

Arau berria **giza kontsumorako zuzenduta doazan antibiotikoetako albaitarien agindu guztiei aplikatuko da** eta transmisio elektroniko hauen baldintzak arautzen ditu, **ezarriz:**

- **Albaiteroek, lan egiten dituzten ustiategietako giza-kontsumorako diren animaliei ezarritako antibiotikoen datuak administrazioari eman behar diote.**

Honela, albaitarien eremuan, Antibiotikoen erresistentziaren aurkako Plana betetzen da, arauaren aplikazioak datu kuantitatiboak emango dituenez gero eta, beste alde batetik, erabilera egokiaren gainean kontzientziatuko du.